

ESAN IEZADAZU GAUR MAITE NAUZULA
 gezurra bada ere
 eta begiak itxita, ezpainak luzatuta
 esaten badidazu, hobe.
 Esan iezadazu suabe, esan errime,
 esan bare,
 esan egia izan daitekeenaren itxaro-
 pena galdu gabe.
 Eman iezadazu musu bat, azkena
 balitz bezala
 eta goizeko ihintzak gure erruak
 garbi ditzala.
 Eman oraintxe, segituan, azkar,
 berehala,
 eman zerbait erreala, eman zerbait
 ttikia eta apala.
 Urruneko hiri eta amodioetara desterratu
 zaizkit lagunak;
 hemen bakarrik gelditzen gara ni eta
 desertuko dunak
 eta, zu bezala, eguzkipean galduta dabiltzan
 mantis alargunak.
 Ez ditut bilatzen errudunak, ez ditut
 bilatzen errudunak.
 Aulki hau zutik eusteko hitz bat
 besterik ez dut behar.